Goi Mailako

Arte plastikoak eta diseinua

# Animazioko goi mailako teknikaria



Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra

Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtsa

El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA

# Animazioko goi mailako teknikaria
# Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

- Mezuak eraginkortasunez komunikatzea hizkuntza plastikoaren eta ikusizko hizkuntzaren bidez.

- Irudi animatuaren bidezko ikus-komunikazioko proiektuak egitea, eta, hala badagokio, pertsuasio-, informazio- eta identifikazio-elementuak integratzea.

- Aldez aurretik zehaztutako zehaztapen narratibo eta teknikoetara egokitutako animazio-proiektuak planifikatzea eta lantzea.

- Animazio-proiektua egiteko iturri eta baliabide optimoak hautatzea eta kudeatzea.

- Irudi animatuaren bidez mezuak komunikatzea hedabideentzat.

- Proiektuaren prozesuaren fase bakoitzari dagozkion kalitate-kontrolak ezartzea.

- Animazio-proiektuan post-produkzioko prozesu egokienak kontuan hartzea.

- Ikus-entzunezko komunikazioaren errealizazioak arautzen dituen araudi espezifikoa ezagutzea eta betetzea.

- Modu eraginkorrean koordinatzea animazio-proiektua garatzeko.

Animazio-proiektu pertsonalak edo enpresa, erakunde edo beste profesional batzuen enkarguz egindakoak egitea.

Animazio-proiektuaren gauzatzea planifikatzea, adierazpeneko alderdiak, alderdi funtzionalak eta teknikoak definituta.

Talde-lana egitea baloratzea eta posible egitea.

Proiektuaren faseak eta kalitate-kontrolak antolatzea eta gauzatzea, komunikazio-helburuak ahalik eta ondoen adierazten dituela bermatzeko.

## KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Titulazio hori duen pertsonak profesional autonomo gisa eta besteren konturako langile gisa garatzen du bere jarduera. Erakundeen enkarguz betetzen ditu eskumenak, bazkide gisa edo ikus-entzunezko errealizazio eta ekoizpeneko taldeetako kide gisa. Bere Sortzaile independentea izateko edo beste profesional batzuen ideiak edo gidoiak egiteko gaitasunak.

Bere lanbidea sektore publikoan edo pribatuan egiten du, komunikazioarekin lotutako enpresetan: zinema-ekoizleak, telebista-ekoizleak, publizitate-agentziak, argitaletxeak eta diseinu-estudioak.

Proiektu propioak egiten ditu, jarduera artistiko independente gisa.

**+ INFO**

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00
**www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/artes-plasticas-grado-superior**

# Arte plastikoak eta diseinua

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Animazioko film independenteak edo kulturaren eta entretenimenduaren industriako ikus-entzunezko edo multimediako ekoizpenetan integratutakoak egitea.
- Animazioko piezetarako norberaren gidoiak egitea edo besteen testuak egokitzea.
- Agertokiak, hondoak, objektuak eta/edo pertsonaiak sortzea.
- Irudikapena definitzeko funtsezko fotogramak sortzea.
- Tartekatze-marrazkiak egitea. 2D edo 3D animazioa osatzen duten elementuak modelatzea eta irudikatzea.
- Sortutako iturriak animatzea, argiztatzea eta koloreztatzea, eta kamera birtualak kokatzea.
- Errendatzea.

## ZIKLOAREN MODULUAK

- Ikusizko irudikatzearen eta adierazpenaren oinarriak.
- Irudiaren teoria.
- Baliabide informatikoak.
- Ikus-entzunezko hizkuntza eta teknologia.
- Argazkia.
- Gidoia eta egitura narratiboa.
- Animazio-teknikak.
- Animazio-proiektuak.
- Ingelesa I.
- Animazioaren historia.
- Animazioari aplikatutako marrazkia.
- • Proiektu integratua.
- • Laneko prestakuntza eta orientazioa.
- • Enpresa, estudio edo tailerretako prestakuntza praktikoaren fasea.